

# HEMEGA/CONSEO:

## Herrien Elkargunea Mendebal European Estaturik Gabekoena

**A**BENDU honen azken egunetan gertatuko da lehen aldiz Europa Mendebaleko estaturik gabeko Herrien Elkargunea. Latinetiko hizkuntzetan CONSEO izena eman zaio (Conferencia de Naciones sense Estat de L'Europe Occidental, katalanez); euskaraz HEMEGA izenarekin bataiatu dugu: «Herrien Elkargunea Mendebal European Estaturik Gabekoena».

Urtebete eraman du Elkargunearen pretaketak. Bertan eskuhartu du hainbat Herri-tako erakunde politikok. Antolatzaile eta eragile nagusia CIEMEN izan da (Centre International Escarré per a les Minorities Etniques i Nacionalitats).

Datorren urtarilean sartuko dira ha-maikagarren eta hamabigarren kideak EEEen: Espainia eta Portugal. Horrela «Hamabien Europa»z mintzatuko zaizkigu hemendik aurrera. Eraikiz doan Estatu-en Europa horri aurrea ematera dator HEMEGA, Herrien Europa eraikiz joateko. Espainia eta Portugal EEEen sartuko diren bezperan, hain zuzen, proposatuko izango du HEMEGAk Europa berri baten aukera.

Beren estaturik ez duten Herri edo nazioetako erakunde politiko sozial, kulturazko eta hiritarrenek hartuko dute parte lehen aldiko HEMEGA horretan. Bost dira onartu beharreko baldintzak:

1.— Beren estaturik gabeko Herri-Nazio-koak izatea.

2.— Europako Herri-Nazio guztien subiranotasuna eskatzea eta horien berdintasuna aitortzea, Europa berri baten eraikitzean.

3.— Europako Herri-Nazio guztien el-

kartasunezko eraketa biletzea, estatu-ek ezarri o hi dituzten banaketa, sistema eta ideologi-ien kontra.

4.— Herri guztien autodeterminazio-eskubidea onartzea.

5.— Herri-Nazio bakoitzaren ingurumarien arabera, horietako bakoitzaren eskubide nazionalak lortzeko borroka-mo-ocluak errespetatzea.

6.— Beren jareintza edo emanzipazioaren alde borrokatzen ari diren munduko Herri eta nazio guztien-eko elkartasuna agertzea.

**O**INARRI horien gain, Herrien eta erakunde-arten arteko ezagutza, lankidetzeta eta trukaketarako plataforma sortzea eta eratzea da HEMEGAREN lehen helburua.

Lehen HEMEGA abenduaren 27tik bitartean egingo da Bartzelonan. Europa Mendebaleko estaturik gabeko Herri-tako hainbat erakunde deitu dute, horretan parte hartzeko. Dagoeneko 75 inguru erakunde-ko baiezkoa eman du. Herri hau-etakoak dira parte hartuko dutenak: Korsika, Galiza, Euskal Herria, Okzitania, Paisos Catalans, Vallée D'Aoste, Sardinia, Cymru, Eire, Breizh, Altsazia, Friul, Slovenija, Flandria, Walo-nia, Tirol Ekialdea, Friesland, Scot-land.

Erakunde partehartzaileez gain, munda-n askapen nazionalaren aldeko borrokan diharduen hainbat erakunde-ri ere deia egin zaio, Elkargunean «gonbi-datu» gisa parte harteko; hirurogeitik gora dira dagoeneko baiezkoa eman du-tenak.

**B**I mailatakoak izango dira, be-raz, HEMEGAN izango diren delegazioak; eskuhartzaileak, batetik, eta «gonbidatuak», bestetik. Eskuhartzaileen artean erakunde politi-koak, sindikalak, kulturakoak, gazterie-nak, etab. daude. Izan ere, bost sail edu-kiko ditu Elkarguneak:

a) Hizkuntzaren normalkuntza, Herri-aren berreraikuntzarako bidean.

b) Autodeterminazioaren aurrerabi-derako estrategiak.

d) Askapen nazionalerako mugimen-duen zapalkuntza estatu-en aldetik, eta eskubide kolektibo-eren defentsa estaturik gabeko Herrien aldetik.

e) Estaturik gabeko Herriak eta Euro-pako antolakuntza ekonomikoa.

f) Estaturik gabeko herrien arteko ha-rreramanak sendotzeko bideak.

**I**KUSTEN denez, askapen na-zionalaren alderdi kulturaz-ko-hizkuntzazkoa, politikoa, ekonomikoa eta anti-errepresiboa sailka aztertuko dira. Alderdi guztien lotura eta harremana batzarre orokorretan nabar-menduko dira.

Euskal Herri-tik honako erakunde hauek dira baiezkoa emandakoak dato-rreren HEMEGAN eskuhartzeko: Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB), Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB), Jarrai, EKIN, Euskal Laborarien Batasuna (ELB), Euskal Herri-ko Nekazarien El-kartea (EHNE), Herri Batasuna (HB), Amnistiaren Aldeko Eragileak. Beste zenbait erakunde politiko eta kulturaz-kori ere deia bidali zaio nonbait, baina oraingo-z behintzat ez dute erantzunik eman.

Paulo AGIRREBALTZATEGI